

136 *Etor bedi Jainkoaren Erreinua!*

(Apokalipsia 11:15; 12:10)

1. Jehoba beti izan da
eta izango da.
Bere semea zintzoki
tronuan da jada.
Lur osoan agintzea
du Erreinuak xedea.

(*ERREPIKA*)

*Orain hurbil dira
salbamen eta indarra.
Otoitzean esan:
«Etor bedi Erreinua!».*

2. Denbora gutxi duela
Deabruak daki.
Guk esperantza daukagu,
nahiz 'ta larri bizi.
Lur osoan agintzea
du Erreinuak xedea.

(*Errepika*)

3. Aingeruak alai daude
kantari zeruan,
Satanasen mehatxurik
ez dutelako han.
Lur osoan agintzea
du Erreinuak xedea.

(*Errepika*)